

8- Funtsezko aliantzak:

Negozioak funtziona dezan, hainbat eragile behar dira:

hornitzaileak, banatzaileak, finantza- bitartekariak, erakunde publikoak eta abar. Kasu batzuetan, aliantzak ere ezar daitezke lehiakideen beste enpresa batzuekin, biek etekinak lortzeko.

Lehenik eta behin gure produktua sortzeko hornitzaileak behar dira, hornitzaile horiek lurraren hezetasun sentzorees, kontrolatzaile elektrikoz eta kontrol balbulaz hornituko gintuzkete, gure produktua sortu ahal izateko. Baina hau ez da izango gure enpresak beharko duen aliantza bakarra, produktua sortu ondoren bezeroengana heltzeko banatzaileak ere behar dira.

